

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## **ITZULPENA<sup>1</sup>**

Araua:

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/112/EE ZUZENTARAUA, 2008ko abenduaren 16koa. Zuzentarau horrek aldatzen ditu, alde batetik, Kontseiluaren 76/768/EEE, 88/378/EEE eta 1999/13/EEE Zuzentarauak, eta bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/53/EE, 2002/96/EE eta 2004/42/EE Zuzentarauak, 1272/2008 (EE) Erregelamendura egokitzeko (substantzien eta nahasteen sailkatzeari, etiketa jartzeari eta ontziratzeari buruzkoa).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :  
«*DIRECTIVA 2008/112/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 que modifica las Directivas 76/768/CEE, 88/378/CEE y 1999/13/CE del Consejo y las Directivas 2000/53/CE, 2002/96/CE y 2004/42/CE del Parlamento Europeo y del Consejo para adaptarlas al Reglamento (CE) no 1272/2008, sobre clasificación, etiquetado y envasado de sustancias y mezclas.*» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 345/68, 2008/12/23koa).

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/112/EE ZUZENTARAUUA, 2008ko abenduaren 16koa. Zuzentarau horrek aldatzen ditu, alde batetik, Kontseiluaren 76/768/EEE, 88/378/EEE eta 1999/13/EEE Zuzentarauak, eta bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/53/EE, 2002/96/EE eta 2004/42/EE Zuzentarauak, 1272/2008 (EE) Erregelamendura egokitzeko (substantzien eta nahasteen sailkatzeari, etiketa jartzeari eta ontziratzeari buruzkoa).**

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute eta, bereziki, haren 95. artikulua eta 175. artikulua 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpena <sup>(1)</sup> aztertu dute,

Aldez aurretik Eskualdeen Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(2)</sup> bete dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduak, substantzien eta nahasketen sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoak <sup>(3)</sup>, xedatzen du bateratu egin behar dela substantzien eta nahasketen sailkapena eta etiketatzea Erkidegoan. Erregelamendu horrek ordeztu egiten ditu, alde batetik, Kontseiluaren 1967ko ekainaren 27ko 67/548/EEE Zuzentaraua <sup>(4)</sup>, substantzia arriskutsuen sailkapenaren, ontziratzearen eta etiketatzearen alorreko lege-, araudi- eta administrazio-xedapenak bateratzeari buruzkoa, eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 31ko 1999/45/EE Zuzentaraua <sup>(5)</sup>, prestakin arriskutsuen sailkapenaren, ontziratzearen eta etiketatzearen alorrean estatu kideek dituzten lege-, araudi- eta administrazio-xedapenak bateratzeari buruzkoa.

(2) 1272/2008/EE Erregelamenduak 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruaren esperientzia du oinarri, eta produktu kimikoak sailkatu eta etiketatzeko Orokorrean Bateratutako Sistemari (GHS – Globally Harmonized System) dagozkion substantziak eta nahasketak sailkatu eta etiketatzeko irizpideak gehitu zaizkio (sistema hori Nazio Batuetan onartu zuten nazioarterako).

(3) 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruaren araututako sailkapenari eta etiketa jartzeari buruzko xedapen batzuk baliagarriak dira, halaber, Erkidegoko legegintzako egintza batzuk ezartzeko, besteak beste, hauek: Kontseiluaren 1976ko uztailaren 27ko 76/768/EEE Zuzentaraua, estatu kideek produktu kosmetikoen alorrean dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoa <sup>(6)</sup>; Kontseiluaren 1988ko maiatzaren 3ko 88/378/EEE Zuzentaraua

<sup>1</sup> L 120 EO, 2008.5.16koa, 50. or.

<sup>2</sup> 2008ko irailaren 3ko Europako Parlamentuaren Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta 2008ko azaroaren 28ko Kontseiluaren Erabakia.

<sup>3</sup> L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.

<sup>4</sup> L 196 EO, 1967.8.16koa, 1. or.

<sup>5</sup> L 200 EO, 1999.7.30ekoa, 1. or.

<sup>6</sup> L 262 EO, 1976.9.27koa, 169. or.

jostailuen segurtasunaren alorrean estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>; Kontseiluaren 1999ko martxoaren 11ko 1999/13/EE Zuzentaraua, jarduera eta instalazio jakin batzuetan disolbatzaile organikoak erabiltzearen ondoriozko konposatu organiko lurrunkorren isuriak mugatzeari buruzkoa <sup>(2)</sup>; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko irailaren 18ko 2000/53/EE Zuzentaraua, ibilgailuen balio-bizitzaren amaiera arautzeari buruzkoa <sup>(3)</sup>, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 27ko 2002/96/EE Zuzentaraua, tresna elektrikoek eta elektronikoen hondakinei (TEEH) buruzkoa <sup>(4)</sup>, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/42/EE Zuzentaraua, pintura eta berniz jakin batzuetan eta ibilgailuen akabera berritzeko produktuetan erabiltzen diren disolbatzaile organikoek ondoriozko konposatu organiko lurrunkorren isuriak mugatzeari buruzkoa <sup>(5)</sup>.

(4) Erkidegoko legeriari GHSko irizpideak gehitzeak arrisku-mota eta -kategoria berriak sartzeari buruzkoa, eta horiek neurri batean bakarrik datoz bat 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruatan araututako sailkapenari eta etiketatzeari buruzko xedapenekin. Aztertu ondoren zer ondorio izan zitzakeen sailkatu eta etiketa jartzeko sistema zaharretik berrira pasatzeak, erabaki zen 76/768/EEE, 88/378/EEE, 2000/53/EE eta 2002/96/EE Zuzentaruatan sailkapen-irizpideak erreferentziatzen hartuz eta 1272/2008/EE Erregelamendua sartutako sistema berriari egokitzuz gero, bi egintza horien esparruak bere horretan jarraitu beharko lukeela.

(5) Horrez gain, 76/768/EEE Zuzentaraua egokitu behar da, kontuan hartzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 1907/2006/EE Erregelamendua, substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzkoa (REACH). Erregelamendu horren bitartez Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortu zen, 1999/45/EE Zuzentaraua aldatu zen, eta hauek indargabetu: Kontseiluaren 793/93/EEE Erregelamendua; Batzordearen 1488/94/EEE Erregelamendua; Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua; Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EE eta 2000/21/EE Zuzentaruak <sup>(6)</sup>.

(6) 1999/13/EE Zuzentaraua egokitu behar da, 67/548/EEE Zuzentaruak agintzen duenaren arabera, R40 arrisku-esaldiaren ordez R40 eta R68 bi arrisku-esaldi berriak jartzeko, bermatzeko behar bezala trasladatu direla 1272/2008/EE Erregelamenduan ezarritako arrisku-oharpenak.

(7) 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruatan jasotako sailkapen-irizpideen trantsizioak guztiz amaituta behar du 2015eko ekainaren 1ean. Kosmetikoek, jostailuen, pinturen, bernizen, ibilgailuen akabera berritzeko produktuen, ibilgailuen eta tresna elektriko eta elektronikoen fabrikatzaile esatean, 1272/2008/EE Erregelamenduan adierazitako fabrikatzaile, inportatzaile eta bitarteko erabiltzaile esan nahi da, eta baita 1999/13/EE Zuzentaruaren ezarpen-esparruan sartzen diren jardueretako operadoreak ere. Zuzentaru honen baitan, horiek guztiek aukera izan behar dute 1272/2008/EE Erregelamenduan jasota dagoen epearen antzekoan aipatutako trantsizioari egokitzeko.

(8) «Lege hobeak egitea» <sup>(7)</sup> Erakundeen arteko Akordioaren 34. puntuan (1) arautzen denari jarraiki, estatu kide orok nork bere taula egin dezan sustatu nahi da, bai eta horiek argitara ditzaten ere, zuzentaru hau eta transposizio-neurriak bat datozela erakusteko ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai estatuentzat, bai Erkidegoarentzat.

(9) Egokia da, beraz, 76/768/EEE), 88/378/EEE, 1999/13/EE, 2000/53/CE, 2002/96/EE eta 2004/42/EE Zuzentaruak aldatzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

### **76/768/EEE Zuzentaruaren aldaketak**

<sup>1</sup> L 187 EO, 1988.7.16koa, 1. or.

<sup>2</sup> L 85 EO, 1999.3.29koa, 1. or.

<sup>3</sup> L 269 EO, 2000.10.21ekoa, 34. or.

<sup>4</sup> L 37 EO, 2003.2.13koa, 24. or.

<sup>5</sup> L 143 EO, 2004.4.30ekoa, 87. or.

<sup>6</sup> L 396 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or. Bertsio zuzendua: L 136 EO, 2007.5.29koa, 3. or.

<sup>7</sup> C 321 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

76/768/EEE Zuzentaraua honela aldatu da:

1) 1907/2006/EE Erregelamenduaren 2006ko abenduaren 30eko bertsioan, 3. artikuluan, 2. paragrafoan azaltzen diren «prestakin» edo «prestakinak» terminoen ordez, «nahasketa» edo «nahasketak» terminoak erabiliko dira testu osoan.

2) 4 *bis* artikuluan, 1. paragrafoan, honako testu hau jarriko da d) idatz-zatiaren ordez: «d) Zuzentarau honen betebeharrak bete ahal izateko, bere lurraldean animalietan osagaiekin edo osagaiak nahastuz probak egitea, beranduenez ere baliozko metodo batek edo gehiagok proba horiek ordeztu behar dituzten datan (2008ko maiatzaren 30eko Batzordearen 440/2008/EE Erregelamenduan edo Zuzentarau honen IX. eranskinean aipatuta daude). 440/2008/EE Erregelamendu horrek xedatzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006/EE Erregelamenduekin bat datozen proba-metodoak. 1907/2006 Erregelamendua substantzia eta prestakin kimikoen (REACH) (\*) erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzkoa da. \_\_\_\_\_ (\*) L 142 EO, 2008.5.31koa, 1. or.».

3) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, 4 *ter* artikuluan ordez honako testu hau jarriko da: «4 *ter* artikulua. Debekatuta dago kartzinogenoak, hozi-zeluletan mutagenoak edo ugalketarako toxikoak diren substantziak, 1A, 1B eta 2. mailetan sailkatuta daudenak, produktu kosmetikoetan erabiltzea. Maila horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduaren VI. eranskinean 3. zatian aipatutakoak dira (Erregelamendua substantzien eta nahasketen (\*) sailkapenari, etiketazeari eta ontziratzeari buruzkoa da). Xede horretarako, Batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu 10. artikuluan, 2. paragrafoan xedatutako araudiaren prozeduraren arabera. 2. mailan sailkatutako substantzia bat kosmetikoak egiteko erabiltzeko aukera dago, baldin eta Kontsumitzaileen Segurtasunaren Batzorde Zientifikoak (CCSC) ebaluatu bada eta produktu kosmetikoetan erabiltzeko onartua izan bada. \_\_\_\_\_ (\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.».

4) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, 7 *bis* artikuluan, 1. paragrafoan, h) idatz-zatian, honako testu hau jarriko da bigarren letrorik azken esaldiaren ordez: «a) idatz-zatian xedatutakoaren arabera argitara eman beharreko informazio kuantitatiboa substantzia hauetara mugatuko da: 1272/2008/EE Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako ondorengo edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituzten substantzietara. Hona hemen: a) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak;

b) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak;

c) 4.1 arrisku-mota;

d) 5.1. arrisku-mota.».

5) IX. eranskinean, honako testu hau jarriko da lehen esaldiaren ordez: «Eranskin honek barnean hartzen du Ikerketa Zentro Bateratuko Metodo Alternatiboak Baliozkotzeko Europako Zentroak baliozkotutako metodo alternatiboen zerrenda. Metodo horiek eskuragarri daude 440/2008/EE Erregelamenduan azaltzen ez diren eta Zuzentarau honek agintzen dituen betebeharrak betetzeko.

### *2. artikulua*

#### **88/378/EEE Zuzentarauaren aldaketak**

88/378/EEE Zuzentaraua honela aldatu da:

1) 1907/2006/EE Erregelamenduaren 2006ko abenduaren 30eko bertsioan, 3. artikuluan, 2. paragrafoan azaltzen diren «prestakin» edo «prestakinak» terminoen ordez, «nahasketa» edo «nahasketak» terminoak erabiliko dira testu osoan.

2) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, II. eranskinaren II. zatiaren 2. atalean, honako testu hau jarriko da b) idatz-zatiaren ordez:

«b) Jostailuek ezingo dute izan honelako substantzia edo nahasketarik: berez sukoiak ez diren osagai lurrunkorrak galtzearen ondorioz sukoiak gerta daitezkeen substantzia edo nahasketarik, jostailuak funtzionatzeko nahitaezko arrazoengatik (bereziki, esperimentu kimikoak egiteko materialak eta ekipoak,

2008/112/EE ZUZENTARAUA (EBren Egunkari Ofiziala, L 345/68, 2008/12/23koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

modelismoa, modelatze plastikoa edo zeramikazko modelatua, esmalteztatzea, argazkilaritza edo antzeko beste jarduera batzuk) jostailu horiek nahasketa arriskutsuak badituzte —67/548/EEE Zuzentarauan zehazten diren modukoak—, edo 1272/2008/EE Erregelamenduaren (\*) I. eranskinean xedatutako edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituzten substantziak badituzte (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EEE Erregelamendua, substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketa jartzeari eta ontziratzeari buruzkoa). Hona hemen:

- i) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak,
- ii) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak,
- iii) 4.1 arrisku-mota,
- iv) 5.1 arrisku-mota,

\_\_\_\_\_ (\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.»

3) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, II. eranskinaren II. zatiaren 2. atalean, honako testu hau jarriko da b) idatz-zatiaren ordezt:

«b) Jostailuek ezingo dituzte izan honelako substantzia edo nahasketarik: berez sukoiak ez diren osagai lurrunkorrek galtzearen ondorioz sukoiak gerta daitezkeen substantzia edo nahasketarik, jostailuak funtzionatzeko nahitaezko arrazoiengatik (bereziki, esperimentu kimikoak egiteko materialak eta ekipoak, modelismoa, modelatze plastikoa edo zeramikazko modelatua, esmalteztatzea, argazkilaritza edo antzeko beste jarduera batzuk) jostailu horiek 1272/2008/EE Erregelamenduaren (\*) I. eranskinean xedatutako edozein arrisku-motaren edo -mailen irizpideak betetzen dituzten substantziak edo nahasketak badituzte (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EEE Erregelamendua, substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketa jartzeari eta ontziratzeari buruzkoa). Hona hemen:

- v) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak,
- vi) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak,
- vii) 4.1 arrisku-mota,
- viii) 5.1 arrisku-mota,

\_\_\_\_\_ (\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.»

4) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, II. eranskinaren II. zatiaren 3. atalean, honako testu hau jarriko da 3. puntuaren lehen lerrokadaren ordezt:

«3) Jostailuek ezingo dute nahasketa arriskutsurik izan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 31ko 1999/45/EE Zuzentarauak (\*) dioenaren arabera. Zuzentarau hori prestakin arriskutsuen sailkapenari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz estatu kideek dituzten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da. Bestalde, jostailuek ezingo dute izan 1272/2008/EE Erregelamenduaren 1. eranskinean xedatutako ondorengo edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituen substantziarik:

- a) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak;
- b) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak;
- c) 4.1 arrisku-mota;
- d) 5.1 arrisku-mota,

jostailu horiek erabiltzen dituzten umeen osasuna kalte dezaketen kopuruetan. Nolanahi ere, guztiz debekatuta dago jostailu batean aipatutako substantziak eta nahasketak sartzea, baldin eta jostailua erabiltzean haiek horretarako erabiltzen badira. \_\_\_\_\_ (\*) L 200 EO, 1999.7.30ekoa, 1. or.».

5) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, II. eranskinaren II. zatiaren 3. atalean, honako testu hau jarriko da 3. puntuaren lehen lerrokadaren ordezt:

«3) Jostailuek ez dute izan behar 1272/2008/EE Erregelamenduaren I. eranskinean xedatuta dagoen ondorengo edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituen substantziarik edo nahasketarik:

a) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak;

b) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak;

c) 4.1 arrisku-mota;

d) 5.1 arrisku-mota, jostailu horiek erabiltzen dituzten umeen osasuna kalte dezaketen kopuruetan. Nolanahi ere, guztiz debekatuta dago jostailu batean aipatutako substantziak eta nahasketak sartzea, baldin eta jostailua erabiltzean haiek horretarako erabiltzen badira.».

6) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, IV. eranskinaren 4. atalean, honako testu hau jarriko da tituluaren eta a) idatz-zatiaren ordezt:

**«4. Substantzia edo nahasketa arriskutsuak berez dituzten jostailuak. Jostailu kimikoak**

a) Nolanahi ere 1272/2008/EE Erregelamenduak ezarritako xedapenen aplikazioa errespetatuz, 1272/2008/EE Erregelamenduaren I. eranskinean xedatuta dagoen ondorengo edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituzten nahasketa arriskutsuak edo substantziak berez dituzten jostailuak erabiltzeko jarraibideetan:

i) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak,

ii) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak,

iii) 4.1 arrisku-mota,

iv) 5.1. arrisku-mota. Substantzia edo nahasketa horiek zer-nolako arriskua duten ohartaraziko da bertan, eta ohar bat jarriko da erabiltzaileak haiek sor ditzaketen arriskuak ez izateko izan behar duen kontuaz ohartarazteko. Arrisku horiek jostailu-motaren arabera zehatz-mehatz espezifikatu beharko dira. Jostailu horiek erabiltzeatik eragindako istripu larrietan eman beharreko lehen sorospenak ere aipatuko dira. Halaber, jostailu horiek adinez oso txikiak diren umeengandik urrun eduki behar direla ere adieraziko da.».

7) 2010eko ekainaren 1etik aurrera, IV. eranskinaren 4. atalean, honako testu hau jarriko da tituluaren eta a) idatz-zatiaren ordezt:

**«4. Substantzia edo nahasketa arriskutsuak berez dituzten jostailuak. Jostailu kimikoak**

a) Nolanahi ere 1272/2008/EE Erregelamenduak ezarritako xedapenen aplikazioa errespetatuz, Erregelamendu horren I. eranskinean xedatuta dagoen ondorengo edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituzten nahasketa arriskutsuak edo substantziak dituzten jostailuak erabiltzeko jarraibideetan:

i) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak,

ii) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak,

iii) 4.1 arrisku-mota,

iv) 5.1. arrisku-mota. Substantzia edo nahasketa horiek zer-nolako arriskua duten ohartaraziko da bertan, eta ohar bat jarriko da erabiltzaileak haiek sor ditzaketen arriskuak ez izateko izan behar duen kontuaz ohartarazteko. Arrisku horiek jostailu-motaren arabera zehatz-mehatz espezifikatu beharko dira. Jostailu horiek erabiltzeatik eragindako istripu larrietan eman beharreko lehen

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

sorospenak ere aipatuko dira. Halaber, jostailu horiek adinez oso txikiak diren umeengandik urrun eduki behar direla ere adieraziko da.».

### *3. artikulua*

#### **1999/13/EE Zuzentarauaren aldaketak**

1999/13/EE Zuzentaria honela aldatu da:

1) 1907/2006/EE Erregelamenduaren 2006ko abenduaren 30eko bertsioan, 3. artikuluan, 2. paragrafoan azaltzen diren «prestakin» edo «prestakinak» terminoen ordez, «nahasketa» edo «nahasketak» terminoak erabiliko dira testu osoan.

2) 5. artikulua honela aldatuko da:

a) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, honako testu hau jarriko da 6. paragrafoaren ordez: «6. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduaren arabera – substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa da (\*)–, COV dutelako kartzinogeno, mutageno edo ugalketarako toxiko gisa sailkatuta dauden substantzien edo nahasketen ordez beste batzuk jarri beharko dira H340, H350, H350i, H360D edo H360F arrisku-oharrak edo R45, R46, R49, R60 edo R61 arrisku-esaldiak izendatuta badituzte edo halakoak adierazita izatea behar badute. Hala, ahal den neurrian eta ahalik eta denbora laburrenean, arrisku gutxiagoko substantziek edo nahasketek ordeztuko dituzte, 7. artikuluan, 1. paragrafoan aipatutako orientazioak kontuan hartuta.

(\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.»;

b) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, honako testu hau jarriko da 6. paragrafoaren ordez:

«6. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduaren arabera –substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa da (\*)–, COV dutelako kartzinogeno, mutageno edo ugalketarako toxiko gisa sailkatuta dauden substantzien edo nahasketen ordez beste batzuk jarri beharko dira H340, H350, H350i, H360D edo H360F arrisku-oharrak izendatuta badituzte edo halakoak adierazita izatea behar badute. Hala, ahal den neurrian eta ahalik eta denbora laburrenean, arrisku gutxiagoko substantziek edo nahasketek ordeztuko dituzte, 7. artikuluan, 1. paragrafoan aipatutako orientazioak kontuan hartuta.

(\*)  
L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.»;

c) 8. paragrafoa honela aldatuko da:

i) «R40 edo R68 arrisku-esaldiak» terminoak jarriko dira «R40 arrisku-esaldia» terminoen ordez,  
ii) «R40 edo R68 etiketa jartzea» terminoak jarriko dira «R40 etiketa jartzea» terminoen ordez,  
iii) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, «H341 edo H351 arriskua adierazteko oharrak» terminoak jarriko dira «R40 edo R68 arrisku-esaldiak» terminoen ordez.  
iii) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, «H341 edo H351 etiketa jartzea» terminoak jarriko dira «R40 edo R68 etiketa jartzea» terminoen ordez;

d) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, 9. paragrafoan, «arriskua adierazteko oharrak» terminoak jarriko dira «arrisku-esaldiak» terminoen ordez.

e) 13. paragrafoa honela aldatuko da:

i) «R40, R68 R60 edo R61 etiketa jartzea» hitzak jarriko dira «R40, R60 edo R61 etiketa jartzea» terminoen ordez,  
ii) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, «H341, H351, H360F edo H360D etiketa jartzea» terminoak jarriko dira «R40, R68, R60 edo R61 etiketa jartzea» terminoen ordez.

### *4. artikulua*

#### **2000/53/EE Zuzentarauaren aldaketa**

2008/112/EE ZUZENTARUA (EBren Egunkari Ofiziala, L 345/68, 2008/12/23koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2010eko abenduaren 1etik aurrera, 2000/53/EE Zuzentarauaren 2. artikuluan honako testu hau jarriko da 11. puntuaren ordezt:

«11. “substantzia arriskutsua”: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduaren –substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa da (\*)– I. eranskinean xedatutako ondoko edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituen substantzia oro:

a) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak;

b) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak;

c) 4.1 arrisku-mota;

d) 5.1 arrisku-mota

(\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.».

### *5. artikulua*

#### **2002/96/EE Zuzentarauaren aldaketak**

2002/96/EE Zuzentara honela aldatu da:

1) 1907/2006/EE Erregelamenduaren 2006ko abenduaren 30eko bertsioan, 3. artikuluan, 2. paragrafoan azaltzen diren «prestakin» edo «prestakinak» terminoen ordezt, «nahasketa» edo «nahasketak» terminoak erabiliko dira testu osoan.

2) 2010eko abenduaren 1etik aurrera, 3. artikuluan, honako testu hau jarriko da l) idatz-zatiaren ordezt:

«l) “substantzia edo nahasketa arriskutsua”: alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 31ko 1999/45/EE Zuzentaraak (\*) dioenaren arabera arriskutsutzat hartzen den edozein nahasketa. Zuzentara hori prestakin arriskutsuen sailkapenari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz estatu kideek dituzten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da; bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduaren –substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa da (\*\*)- I. eranskinean xedatutako ondoko edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituen substantzia oro:

i) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak;

ii) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak;

iii) 4.1 arrisku-mota,

iv) 5.1 arrisku-mota

(\*) L 200 EO, 1999.7.30ekoa, 1. or.

(\*\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.».

3) 2015eko ekainaren 1etik aurrera, 3. artikuluan, honako testu hau jarriko da l) idatz-zatiaren ordezt:

«l) “substantzia edo nahasketa arriskutsua”: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamenduaren –substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa da (\*)– I. eranskinean xedatutako ondoko edozein arrisku-motaren edo -mailaren irizpideak betetzen dituen substantzia oro:

i) 2.1etik 2.4ra bitartekoak, 2.6, 2.7, 2.8 A eta B, 2.9, 2.10, 2.12, 2.13 1. eta 2. mailak, 2.14 1. eta 2. mailak, eta 2.15 A-tik F-ra bitartekoak diren arrisku-motak;



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- ii) 3.1etik 3.6rako arrisku-motak, 3.7 funtzio sexualari eta ugalkortasunari buruzko edo garapenari buruzko kontrako efektuak, 3.8 narkotikoak ez diren beste efektu batzuk, 3.9 eta 3.10 arrisku-motak;
- iii) 4.1 arrisku-mota,
- iv) 5.1 arrisku-mota

(\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.».

4) II. eranskinaren lehen atalean, honako testu hau jarriko da hamahirugarren gidoiaren ordeztuz: «— Zeramika-zuntz erregogorak dituzten osagaiak, 1272/2008/EE Erregelamenduaren VI. eranskinaren 3. zatiko deskribapenari jarraiki».

*6. artikulua*

**2004/42/EE Zuzentarauaren aldaketa**

2004/42/EE Zuzentarauaren 2. artikulua honela aldatuko da: a) 3. paragrafoan, «nahasketa» terminoa jarriko da «prestakin» terminoaren ordeztuz; b) 8. paragrafoan, «nahasketa» jarriko da «prestakin» terminoaren ordeztuz.

*7. artikulua*

**Estatuko Zuzenbidean jasotzea**

1. Estatu kideek erabakiko eta argitaratuko dituzte, beranduenez 2010eko apirilaren 1ean, Zuzentarau honetan xedatutakoa betearazteko beharrezkoak diren legezko, erregelamenduzko eta administrazioko xedapenak. Xedapen horien testua berehala jakinaraziko diote Batzordeari. Xedapen horiek 2010eko ekainaren 1etik aurrera aplikatuko dituzte. Estatu kideek xedapen horiek erabakitzen dituztenean, haiek Zuzentarau honi erreferentzia egingo diote edo haren argitaratze ofizialean erreferentzia hori azalduko da. Estatu kideek aipatutako erreferentziaren modalitateak finkatuko dituzte.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote Zuzentarau honek araututako alorrean hartuko diren barneko Zuzenbidearen xedapen nagusien testua.

*8. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeitun egunera sartuko da indarrean.

*9. artikulua*

**Hartzaileak**

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak. Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

*Europako Parlamenturen izenean, H.-G. POTTERING presidentea*  
*Kontseiluaren izenean, B. LE MAIRE presidentea*